

Nazioarteko Online Ikastaroa


**“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK.
Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta
prozesu kolektiboak eraikitzen”**

2. edizioa

(2020-2021 Ikasturte akademikoa)

2021

Gida Didaktikoa – 2. Modulua



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Finantziatzaioa:



Teresa Cunha

Centro de Estudos Sociais (Coimbrako
Unibertsitatea)

15-02-2021



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

2. Modulua: Hegoaldeko epistemologiaren eta bizitza zaintzaren hermeneutika feminista bat

2

Moduluaren sintesia

Hegoaldeko epistemologiak erronka bat dira: Hegoalde bat dagoela aitortzea, Hegoaldera joatea eta Hegoaldetik ikastea. Hegoalde hori ez da geografikoa, Iparraldearen beste muturrean dagoen zerbait, baizik eta metafora bat. Kolonialismoak, kapitalismoak eta heteropatriarkatuak beren arrazionaltasun androzentriko eta antropozentrikoen bidez erabilitako indarkeriak eragin duen borroka eta sufrimendutik ikasitakoa esan nahi du Hegoaldearen metafora horrek. Horregatik, Hegoaldeko epistemologiaren hermeneutika feministak bi premisa nagusi erabiltzen ditu.

Lehenbizikoa da ez dagoela justizia sozialik eta kognitiborik justizia sexualik gabe. Feminista askok denetariko enuntziazio-lekutatik eta ikuspegitatik jarri dituzte zalantzan eraikitako subalternitateak, ezarritako isiltasunak, haien aniztasunaren amalgama eta beren burua emakumetzat edo femeninotzat definitzen duten subjektu horien zapalkuntza-mailak. Hala, zalantzan jartzen dira hiru ezaugarri hauek dituzten irudimen soziologiko guztiak, feministak izan edo ez: batetik, aintzat ez hartzea, ez balioestea eta ez balioztatzea zenbateko botere epistemikoa eta soziala duen munduak, hain zuzen ere emakumeek – denentzako bizitza ugari eta duin baten bila aritzean– izandako bizipen eta jakintza anitzen bidez pentsatua eta markatua denean; bigarrenik, aukera ematea jakintzak areagotzeko, horien bidez hauteman ahal izan dadin zer-nolako tirabira eta desberdintasun sexistak dauden oraindik bizirik; eta hirugarrenik, Hegoalde horretan emakumeek gainditzeko eta eraldatzeko duten energia bikaina arakatzea. Jakintza guztiak osatugabeak dira eta edozein zientzia harroa da, feminista ez bada.

Bigarren premisa da bizitza –giza bizitza eta gainerako guztiak– zaintzea dela modurik iraultzaileena pentsamendu kritiko oro deskolonizatzeko eta orainaldi kolektiboan pentsatzeko, eta sortu eta gauzatu behar ditugun alternatibetan pentsatzeko. Koronabirus berriaren



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

2. Modulua: Hegoaldeko epistemologiaren eta bizitza zaintzaren hermeneutika feminista bat

3

pandemiarekin bizi izaten ari garenak argi eta garbi utzi ditu bi gauza: bizitza zaintzea funtsezkoa dela; eta gure gizarteak ez daudela prestatuta gure sistema kapitalista neoliberal honen joera suntsitzaileari aurre egiteko, sistema neoliberal horrek bizkor hedatzen den ekaitz perfektu baterako baldintzak sortu baititu, eta horren isla da zeinen azkar hedatzen diren horrelako testuinguruan sortutako indarkeria, desberdintasuna eta gainerako gaixotasunak. Politikariek eta hedabideek osasun-munduaren eta kaos ekonomikoaren metafora belikoak erabili dituzte, baina horien aldean, guk modulu honen abiapuntuan diogu ekonomiarik errealena eta produktiboena ez dela inoiz gelditu. Izan ere, etengabe bizia sortzen duten ekonomiak bete-betean ari dira lanean, babesten, elikatzen, aterpea ematen, zaintzen, elikagaiak sortzen, garbitzen, laguntzen eta maitatzen. Eta adin guztietako eta mundu osoko emakumeak eta neskak ari dira, batez ere, bizitzarako eta ekonomiarako funtsezkoak diren lan horiek guztiak egiten. Ildo horretan, ekonomiarik errealena bizitza zaintzea dela diogu, eta horrekin lotutako lanak direla produktiboena.

Alternatibak martxan daude, susmoen artean isilduak, gutxietsiak eta ahulduak, baina oso presente egon dira gure itxialdiko egunetan edo oraindik ulertzen ez dugunaren eta etorkizunak ekarriko digunaren beldurrean. Hau da leloa: ezer ezin da izan lehen bezalakoa!

Moduluaren egitura

Errealitate horri begiratzen diot nire enuntziazio-lekutik: emakumea, feminista eta afrikarra izatetik. Neure burua definitzeko erabiltzen ditudan horiek edukia dira, eta ez soilik zertzelada biografikoak. Hala, dialogo feminista bat egin nahi dut hiru unetan:

1.- Zer diren Hegoaldeko epistemologiak eta haien hermeneutika feminista.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

2. Modulua: Hegoaldeko epistemologiaren eta bizitza zaintzaren hermeneutika feminista bat

2.- Ekonomia politiko garaikidea eta bere ekaitzak: indarkeriak, desberdintasunak eta pandemiak.

3.- Bizitza zaintzea eta bere alternatibak. Ezer ezin da izan lehen bezalakoa.

4

Ikasleen egitekoak

- Testua arretaz irakurtzea eta interesgarrien aurkitzen diren aspektuei buruzko laburpen edo iruzkina egitea.
- Egiten diren galderei erantzutea.
- Eztabaida-foroan parte hartzea.

Kronograma orientatiboa

Modulua 7 egunekoa da, **2021eko otsailaren 15etik 21era**, guztira 6 ordukoa. Pertsona bakoitzak bere modura antolatuko du denbora, baina banaketa hau proposatzen da, egunean ordubete:

21/02/15 astelehena	21/02/16 asteartea	21/02/17 asteazkena	21/02/18 osteguna	21/02/19 ostirala	21/02/20 larunbata	21/02/21 igandea
- Gida didaktikoa irakurtzea - 2. moduluko bideoak ikustea - Oinarrizko testua irakurtzea	- Oinarrizko testua irakurtzea - Bestelako baliabide bibliografikoak irakurtzea eta ikus-entzunezkoak ikustea - Zalantzak argitzea irakaslearekin	- Foroko 1. galderari ekitea - Foroko 1. galderan parte hartzea	- Foroko 2. galderari ekitea - Foroko 2. galderan parte hartzea - Foroko 1. galderan parte hartzea	- Zalantzak argitzea irakaslearekin - Azken zereginari ekitea: saiakera	- Saiakera idaztea	- Saiakera entregatzea (epe zabalagoa adostu ahalko da) - Foroa eta 2. modulua ixtea



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

2. Modulua: Hegoaldeko epistemologiaren eta bizitza zaintzaren hermeneutika feminista bat

5

Oinarrizko testua euskaraz

<https://territoriolab.org/wp-content/uploads/2019/12/Mod-2-EUS.pdf>

Beharrezko irakurketak

- Cunha, Teresa; Casimiro, Isabel (2019), ‘Epistemologías del Sur y alternativas feministas de vida: las cienicientas de nuestro Mozambique quieren hablar’, in Jokin Alberdi, Isabel Casimiro, Teresa Cunha, Alfonso Dubois, Gonzalo Fernández, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, María Oianguren y Luísa de Pinho Valle (org.), Territorios en conflicto. Claves para la construcción de alternativas de vida. Gernika-Lumo: Gernika Gogoratuz, 71-118. (disponible online en [PDF](#))

- Cunha, Teresa (2020), ‘As pandemias e a vida. Uma reflexão feminista contra-a-corrente’, Feminist Reflections. Maputo: FES. (en prensa, pero disponible en PDF)

Kontsultarako eta sakontzeko erreferentzia bibliografikoak

- Amadiume, Ifi (1997), Reinventing África: matriarchy, religion, culture. London; New York: Zed Books.
- Agarwal, Anil; Narain, Sunita (2003), Global warming in an unequal world. A case of environmental colonialism. New Delhi: Centre for Science and Environment.
- Bidaseca, Karina; Laba, Vanesa Vazquez (Comps.) (2011), Feminismos y poscolonialidad. Descolonizando el feminismo desde y en América Latina. Buenos Aires: Ediciones Godot, Colección Crítica.
- Celentani, Francesca Gargallo (2014), Feminismos desde Abya Yala. Ideas y proposiciones de las mujeres de 607 pueblos en



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

2. Modulua: Hegoaldeko epistemologiaren eta bizitza zaintzaren hermeneutika feminista bat

nuestra América. Ciudad de México: Editorial Corte y Confección.

- Cunha, Teresa (2014), Never Trust Sindarella. Feminismos, Pós-colonialismos, Moçambique e Timor-Leste. Coimbra: Edições Almedina.
- Cunha, Teresa (2015), Women InPower Women. Outras economias criadas e lideradas por mulheres no sul não-imperial. Buenos Aires: CODESRIA – CLACSO –IDEAs.
- Fernández, Gonzalo Ortiz de Zárate (2016), Alternativas al poder corporativo. 20 propuestas para una agenda de transición en disputa con las empresas transnacionales. Barcelona: Icaria Editorial.
- Lugones, María (2014), 'Rumo a um feminismo descolonial', Revista Estudos Feministas, Florianópolis, Setembro/Dezembro, 22(3): 320, pp. 935 – 952.
- Mohanty, Chandra Talpade (1991), 'Under western eyes: feminist scholarship and colonial discourses, in Chandra Talpade Mohanty et al (Org.), Third world women and the politics of feminism. Bloomington: Indiana University Press, p. 462-487.; Federici, Silvia (2004), Caliban and the witch. Brooklyn New York: Autonomedia.
- Oyewumi, Oyèrónké (Org.) (2005), AFRICAN gender studies: a reader. Hampshire: Palgrave Macmillan.
- Perez Orozco, Amaia (2014) Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Santos, Boaventura de Sousa (2018), O Fim do Império Cognitivo. Coimbra: Edições Almedina.
- Svampa, Maristella (2013), "'Consenso de los Commodities' y lenguajes de valoración en América Latina", Nueva Sociedad, nº 244, pp. 30 – 46;

Ikus-entzunezko materiala

- BURKINABÈ BOUNTY: Agroecology in Burkina Faso, de Slow Food



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

2. Modulua: Hegoaldeko epistemologiaren eta bizitza zaintzaren hermeneutika feminista bat

- La Fiebre del Oro, de Medicus Mundi
- Mexeu com uma, mexeu com todas, da Fundação Fredrich Ebert Moçambique
- Terra em Suspense, de Gernika Gogoratuz
- Mulheres das águas, da Fundação Fiocruz
- Síntesis minera la vida tiene futuro, de Gernika Gogoratuz

7